

tzailea, ikasleak, tigrea, kaiola, denak desagertu egin ziren. Tigrea hirirat bihurtu zen, eta kaiola hiri».

Bortxaezina den orenen prostituzioa posible egin duen herrialdea, halakoa da Tamerren lanak deskribatzen digun Siria. Ipuin batean, emakume bat bost gizonnek bortxatua izatear da parke batean. Itzaroteko esaten die, proposamen bat duela haientzat. Batek pentsa dezake haien asmoa aldatzen saiatuko dela, baina horren ordez bere 11 urteko alabari deitzen uzteko eskatzen die haiei «zerbitzatzeko» lagun diezaion.

Siriako politika kulturaren inguruan idatzitako liburuan, Lisa Weedenek dio «Assad familiarekiko atxikimendua frogatzera behartzen ditu[ela] erregimenak herritarrek, eta horrek herrita-

Ikasi egiten den zerbit da isiltasuna, gertaera ikaragarrien aurrean entzungorrena eta ez ikusiarena egitea

Bortxaezina den orenen prostituzioa posible egin duen herrialdea, halakoa da Tamerrek deskribatzen digun Siria

rrak indarkeria handiko errituetan parte hartzera bultzatzen ditu». Adibide moduan, armadako gizon gazte bati buruzko istorioa azaltzen du Weedenek, M izenekoa. Goi-mailako ofizial batek soldadu gaztearen erregimentuari bisita egin zion behin, eta aurreko gauean izandako ametsak kontatzeko eskatu zion soldaduei. Batek esan zuen buruzagiaren irudia ikusi zuela zeruian eta suzko eskailera batean gora joan zela bera, hari musu emateko. Bigarren soldaduek, aurrekoaren hariari helduta, buruzagia eguzkia eskuetan zuela ikusi zuela esan zuen, eta hura estutu eta mila pusketatan hautsi zuela. Jarrera, iluntasuna lurraren jabe egin zen. «Orduan, buruzagiaren aurpegia argitu egin zen, norabide guztietan argia eta berotasuna zabalduz». Bere txanda iritsi zenean, ama ofizialaren logelan prostituta zebilela amets egin zuela esan zuen M-k. Hitzongatik sekulako jipioa jaso zuen soldaduek eta armadatik bota egin zuten. Izan ere, bere herrialdea prostituta bat dela esana zion ofizialari (*umma*, nazioa, eta *umm*, ama, hitzen arteko jolasa da ametsa), eta armada, M-rengandik prostituta bat dela esana zion ofizialaren logelan ikusten duena) horren konplize dela.

Aire beltz txute bat

Alex Gurrutxaga

Igela argitaletxearen Sail Beltzak Raymond Chandler, Jim Thompson edo Bill S. Ballinger bezalako egileen lanak biltzen ditu. Nobela beltzaren izen ezagunak dira, generoaren klasikoak. Batzuek esaten dute ildo nagusi bi daudela genero beltzaren barruan: eskandinaviarra bata, AEBetakoak bestea. Sail Beltzean azken multzo handiko izen asko dago, Samuel Dashiell Hammetten hiru nobela tartean: *Uzta gorria* (1929), *Maltako belatza* (1930, ezaguna, halaber, John Hustonek egindako filmagatik), eta azkena, *Kristalezko giltza* (1931; honek ere badauzka gutxienez bi egokitzapen zine-man: Frank Tuttlereña 1935ean eta Stuart Heislerrena 1942an).

Beharbada, urteen gurgpilean handiago egin dira Raymond Chandler eta beste egile batzuk, eta seguruenik esan daiteke ikasleek maisuaren lana gainditu zutela. Funtsean, baina, nobela bel-

tzaren aitzindaria da Hammett. Idazle eta zinema gidolaria izan zen, baina ez hori bakarrik. Gerra Handiaren aurretik Pinkerton detektibe agentzian lan egin zuen, eta, gerora, ez zion izkin egin aktibismo politikoari: bi mundu gerretan parte hartu zuen, Alderdi Komunistan sartu zen, eta kartzelan pasatu zituen



'Kristalezko giltza'

Egilea: Dashiell Hammett.
Itzultzaileak: Xabier Olarra eta Estibaliz Lizaso. **Argitaletxea:** Igela.

Euskadi saria 2015

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Esku artean 2015eko Euskadi Literatura sarietako irabazlea dugu, Haur eta Gazte literatura atalekoa, eta, zehaztu dezagun, helduei begirako obra ere bada.

Bertan Bizenta Antonia Mogen biografia fikzionatua eskaintzen zaigu, 160 orrialdeetan egituratutako obra, bi planotan garatzen den eguneroko baten itxura duena, eta lau atal nagusitan banatuta dagoena.

Bi plano horietako batean Bizentaren bizitza kronologikoki agertzen zaigu, eta bestean Arrietak obra osatzeko egindako ikerketaren kronika, fikzionatua, hori ere.

Obraren egitura eta garapena konplexuak, trinkoak eta mamitsuak dira.

Ez da erraza definitzea zein

testu mota den nagusi, badu denetik pixka bat: narrazioa, biografia, historia, istorioak, kronikak, grafologia saialdiak... gehi obra egiteko erabili diren irizpideak, hausnarketak, eta aholkuak. Arrieta ezagutzen duenak badu haren jardun aniztaren berri, eta ezagutzen ez duenak hartarako aukera paregabea dauka, ezen *Argiaren alaba* saiakerak Yolanda Arrietaren soslaia, artea eta aldartea ere erakusten baitzikigu, autofikzioa deitzen zaion generoaren bidez.

Bai: eros ezazu.



'Argiaren alaba'

Idazlea: Yolanda Arrieta Malaxtebarria.
Argitaletxea: Denonartean.

hilabete batzuk. Jakina da tuberkulosiak eta alkoholismoak erasan ziotela ere.

Kristalezko giltza-n, Henry senariaren semea kalean agertzen da gorpua, eta Ned Beaumont da kasua argitzen saiatuko den protagonistak nagusia. Ned ez da generoko protagonista arketipoa; izatez ez da detektibe ere, eta zeharka hasten da ikerketan, adiskide politikariari laguntzeko. Hala ere, genero beltzean ohikoa den bezala, tipo eredugarria ere ez da hain justu. Istorioan bat egiten dute gangster kontuek, pertsonaien negozioek eta politikak. Nahasmen horretan zuzentasunaren muga galdua dago: «beren kontuak lehenbailehen konponduta izatera ohituta» dagoen jendea da, kito, eta ugariak dira *hardboiled* delakoaren osagaiak, hala nola indarkeria, jipioak eta alkohola. Pare bat berezitasun nabarmendu daitezke gutxienez: batetik, nobelako hauteskundearen giroa, eta hargatik politikak eta kazetaritzak hartzen duten dimentsioa; bestetik, berriz, interresgarria da Nedek Janet protagonistak emakumezkoarekin daukan harreman lauso xamarra –batez ere jakinik nobela hauen ei-

tea nolokoa izaten den genero ikuspegitik–.

Eleberriaren ezaugarri formalak oso markatuak dira. Narra-tzaileak Ned Beaumonti jarraitzen dio etengabe. Ekintza karakterizazioa baino garrantzitsuagoa da, eta ez da pertsonaien psikologian sakontzen; beraz, kamerak hartuta bezala, ikusle lekukoaren pare jasotzen dugu dena. Horrekin lotuta dago elkarrizketen ugaritasun eta garrantzia: hauek abiadura eta dramatizazioa areagotzen dute. Kontakizuna iraganaldian egina dago, anakroniarik gabe ia –elipsiak eta laburpenak, betiere–, eta azkar egiten da hirien espazio batetik besterako trantsizioa. Ondorioa, argia: efektu zinematografikoa eta abiadura; irakurleak erritmoak eramanda irensten du istorioa.

Iraganeko eleberrietara itzultzeko aukera ez da oso moderno-plantakoa, are gutxiago beltzak hainbeste fruitu eman duenean. Baina azken urteotan genero-nobelaren itzalpean argitaratu den zenbait gaiza ikusita –besterik ez esatearren–, Hammettengana itzultzea aire zikin txute bat hartzea bezala da; zerbait lohia eta desegokia, beltz lehena.

Jakin-mina

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Liburu hau Edelvives argitaletxeak antolatzen duen Alandar gazte narrratibako XIII. lehiaketako irabazlea da.

Eleberriak, neurri handi batean, gazte baten eguneroko bizitza kontatzen digu, eta, paraleleki, beste leku batean eta aldi berean gertatzen denaren berri ematen zaigu. Bi hari narrratiboak ez dira berez josten, baina, kontaketa aurrera egiten duen neurrian, irakurleak ezinbestean sortzen du lotura.

Lehenengo pertsona idatzita dagoenez eguneroko baten antza dauka, baina protagonistak maiz hitz egiten dio irakurlearekin derigor identifikatu behar den zuek bati. Iduri luke intimitatea gurekin konpartitzen ari dela, inguruko inori esaten ez dizkionak guri esaten dizkigulako.

Bi narrazioak batzen ditugun unetik aurrera protagonistak ez dakien egia izugarri baten jabe egin gata, eta haren jokabidearen gaineko hausnarketa sortzen zaigu, kritika sozialetik asko duena. Azken buruan irakurketa arin baten bidez gure ekintzen ondorioez hausnartzera gonbidatzen zaigu, *birtuala* eta *globala* bezalako hitzek noraino garamatzaten oharartazteko.



'Kalte gabeko jokoak'

Idazlea: Ricardo Gomez. **Itzultzaileak:** Aitor Arana. **Argitaletxea:** Ibaizabal.